

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

4153

87/2025 EBAZPENA, irailaren 26koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmena, Vitoria-Gasteiz hiriaren sustapena finantzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunuen egoitza den aldetik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatu den lankidetzeta-hitzarmena sinatu du, eta, behar bezalako publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmena, Vitoria-Gasteiz hiriaren sustapena finantzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunuen egoitza den aldetik. Lankidetzeta-hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 26a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2025eko urriaren 3a, ostirala

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN IRAILAREN 26KO 87/2025 EBAZPENARENA

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA VITORIA-GASTEIZKO UDALAREN ARTEKOA, VITORIA-GASTEIZ HIRIAREN SUSTAPENA FINANTZATZEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE KOMUNEN EGOITZA DELAKO

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 16a.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Imanol Pradales Gil jauna, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta hura ordezkatzuz.

Eta bestetik, Maider Etxebarria García, Vitoria-Gasteizko Udaleko alkate-udalburua.

Bi ordezkariiek gaitasun juridiko nahikoa aitortzen diote elkarri, eta dokumentu hau sinatzen dute dagozkien erakundeen izenean, eta, horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

I.– Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren arabera, «Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez izendatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza, Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan».

II.– Aurreikuspen horretan oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Egoitzari buruzko maiatzaren 23ko 1/1980 Legearen bidez, Vitoria-Gasteiz izendatu zen Eusko Legebiltzarraren eta Jaurlaritzaren egoitza (ondoren, arau-aurreikuspen hori irailaren 21eko 6/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Egoitzari buruzko Legearen testu bateginean jasotakoaz ordeztu zen).

III.– Inguruabar horrek esan nahi du Vitoria-Gasteizko Udalak, erakunde erkideen (Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarra) eta horiekin lotutako gainerako erakundeen (hala nola Arartekoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa) egoitza den aldetik, gastu orokorrak eta inbertsio-gastuak dakartzaten jarduerak egin behar dituela, besteak beste, segurtasunarekin eta babes zibilarekin lotutakoak (ekitaldi publikoak), hirigintzarekin eta espazio publikoak mantentzearekin lotutakoak, ondare historikoaren babesarekin edo kapitalaren irudia sustatu eta hobetzearekin lotutakoak, udal-aurrekontuen gastua eta inbertsioak handitzea dakartenak, eta Udalak ezin izango die gastu hori erabiltzaileei jasanarazi.

IV.– Hala, 2013., 2017. eta 2021. urteetan, hitzarmenak sinatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren artean, Vitoria-Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza gisa sustatzeko.

V.– Testuinguru horretan, aurreko legegintzaldiari dagokion hitzarmenaren indarraldia amaituta, egungo gobernuak, eta, haren barruan, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailak – toki-araubidearen arloko eskumena du, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 11.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera –, adierazi du Vitoria-Gasteiz sustatu nahi duela, XIII. Legegintzaldi honetan autonomia-erkidegoko erakunde komuneko egoitza izan dadin. Era berean,

eta osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzak 2025-2028 XIII. legegintzaldian hiriko azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzea ahalbidetuko duten inbertsio batzuk egiten laguntzeko borondatea adierazi du.

VI.– Helburu horrekin, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 14.etik 24.era bitarteko artikuluen arabera Vitoria-Gasteizko Udalak duen eskumenaren barruan, Vitoria-Gasteizko Udalaren gastu orokorrak eta inbertsioak finantzatzen lagundu nahi da. Gastu horiek udal-aurrekontuaren I., II., IV., VI. eta VII. kapituluei dagozkie, eta, oro har, helburu hauek dituzte: hiri-inguruneari baldintza ezin hobeetan eustea, herritarren eta hainbat arrazoirengatik hiria bisitatzen duten pertsonen mugikortasuna, irisgarritasuna eta segurtasuna, bai eta zerbitzu publikoak oro har hobetzera bideratutako beste batzuk ere.

Horregatik guztiagatik, interesak bat datozela kontuan hartuta, eta baliabideen erabileran efi-zientzia handiagoa sustatze aldera, goian bildutakoek lankidetzaz-hitzarmen hau formalizatu dute, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

Hitzarmen honen xede nagusia da alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituen esparru juridikoa ezartzea, azken helburua lortzeko: Vitoria-Gasteiz sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza den aldetik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bere Aurrekontu Orokorraren bidez, helburu hori lortzera bideratuko duen zenbatekoak Vitoria-Gasteizko Udalaren gastu orokorrak eta inbertsio-gastuak ordainduko ditu. Gastu horiek Vitoria-Gasteizko Udalaren udal-aurrekontuko I., II., IV., VI. eta VII. kapituluetakoak izango dira, eta, oro har, honako hauetarako balio izango dute: hiri-ingurunea baldintza onenetan mantentzeko, herritarren eta bisitarien segurtasuna bermatzeko, azpiegiturak eta zerbitzu publikoak hobetzeko, mugikortasun- eta irisgarritasun-azpiegiturak hobetzeko eta Vitoria-Gasteiz sustatzeko erakunde erkideen egoitza gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundearen Egoitzari buruzko Legearen testu bateginean jasotako izendapenarekin bat etorritik.

Bigarrena.– Alderdien konpromisoak.

Hitzarmen hau gauzatzeko, alderdi sinatzaileek konpromiso hauek hartzen dituzte:

1.– Eusko Jaurlaritzaren ekarpena:

Eusko Jaurlaritzak, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren bidez, guztira berrogeita hamar milioi (50.0000.000) euro emango ditu 2025., 2026., 2027. eta 2028. urteetan, urtean hamabi milioi eta bostehun mila (12.500.000) euro, eskema honen arabera:

– 7.500.000 euro, Vitoria-Gasteiz hiria erakunde erkideen egoitza gisa sustatzeko, udalaren gastu orokorrak eta hiri-espazio publikoa birgaitzeko eta mantentzeko obrak finantzatzeko.

– 5.000.000 euro, Vitoria-Gasteiz erakunde erkideen egoitza gisa sustatzeko, inbertsioak egiteko arlo hauetan: mugikortasuna, irisgarritasuna, ingurumen-azpiegiturak, ekipamendu zibikoak eta soziokulturalak eta hiri-berroneratzea; enpleguaren eta gizarte-politiken arloko programak; garapen teknologikoa, ekonomikoa eta industrialia.

Horrela, Jaurlaritzak 12.500.000 euro-ko ekarpena egingo du urtean, bere aurrekontuko eskema eta kapitulu hauen arabera:

Ekarpenak Eusko Jaurlaritza	Urtean guztira 2025	Guztira 2025-2028
Gasteizko hiria Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza gisa sustatzeko zenbatekoa, gastu orokorrak (IV. kapitulua) eta hiri-espazio publikoan azpiegiturak eta ekipamenduak birgaitzeko obrak (VII. kapitulua) finantzatzeko	7.500.000 euro	30.000.000 euro
Gasteizko hiria Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza gisa sustatzeko zenbatekoa, azpiegiturretan eta ekipamenduetan beste inbertsio batzuk egiteko (VII. kapitulua)	5.000.000 euro	20.000.000 euro
Guztira	12.500.000 euro	50.000.000 euro

Konpromiso horiek hitzarmen honi egingo zaizkion gehigarrien bidez gauzatuko dira urtero.

2025. urteari dagokion gehigarria hitzarmen honen sinaduraren bitartez onartzen da, eta haren eranskinean jasotzen da.

2026., 2027. eta 2028. urteei dagozkien gehigarriak Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren ebazpen bidez onartuko dira, hitzarmen honen seigarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordeak proposamena egin ondoren, eta hiri-espazio publikoan azpiegiturak birgaitzeko eta mantentzeko obrak jasoko dira, Vitoria-Gasteiz hiria erakunde erkideen egoitza gisa sustatzeko, bai eta inbertsioetarako urteko partidaren bidez finantzatu beharreko azpiegitura eta ekipamenduetako inbertsioak ere. Nolanahi ere, Vitoria-Gasteizen etorkizuneko garapenean lagunduko duten proiektu enblematikoetan parte hartzea aurreikusiko da, eta, horretarako, hirugarren klausulan aurreikusitakoak hartu beharko dira kontuan.

2.– Vitoria-Gasteizko Udalaren konpromisoak:

Hargatik eragotzi gabe Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan adierazitako betebeharrak aplikagarriak, Vitoria-Gasteizko Udalak betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Emandako ekarpen ekonomikoa laguntzaren xede diren gastuak ordaintzeko erabiltzea.
- b) Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailari ematea jarduketak gauzatzearen ondoriozko administrazio-kudeaketarako eskatzen diren datu guztiak.
- c) Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkion kontrol-jarduketan mende jartzea, jasotako dirulaguntzei dagokienez, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren berriarazko araudian aurreikusitako mende ere.
- d) Gastuak laugarren klausulan ezarritako moduan justifikatzea.
- e) Seigarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordean aktiboki parte hartzea eta laguntza jaso zen baldintzetan gerta daitekeen edozein aldaketaren berri ematea.
- f) Emandako dirulaguntzaren publizitateari eta zabalkundeari buruz zortigarren klausulan ezarritako betebeharrak betetzea.

g) Seigarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordeari eta dirulaguntza kudeatzeaz arduratzen den organoari jakinaraztea beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik helburu bererako jasotako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak.

Hirugarrena.– Proiektu enblematikoak.

Hitzarmen honen ondorioetarako, 2026., 2027. eta 2028. urteetako gehigarrietan jasoko diren proiektu enblematikotzat hartuko dira honako hauek:

- Judimendi gizarte-etxea.
- Aldabe gizarte-etxea.
- Goya gasolindegia birgaitzea.
- Iliada zubia konpontzeko inbertsioak.
- San Antonio kalea eraberritzea.
- Legutioko Atearen kalea eraberritzea.
- Gasteiz hiribidearen 2. fasea eraberritzea, Tomas Zumarraga Dohatsuaren eta Gaztela kaleko zubiaren artean (Justizia Plalazioaren ingurua).
- Herrandarren kalearen 2. fasea eraberritzea, Karlos V.aren plazaren eta Ballester eta Estenaga apezpikuaren arteko bidegurutzearen artean.
- Artium ingurunea erreformatzea (irekiera, 25. urteurrena), Esperanza, Prudencio María Verástegui eta Paloma kaleetan. Ballestingo Juncal plazaz gain.

– Iradier Arena eraberritzea.

– Maturana Verstegui hiri-museoa.

Laugarrena.– Ordaintzeko eta zuritzeko modua.

1.– Urte bakoitza ordaintzeko, dirulaguntza eman den helburua betetzeko egindako gastua justifikatu beharko da, jatorrizko fakturen, kopia konpultsatuen edo ordaindutako zenbatekoen ziurtagiri xehatuaren bidez, Osoko Bilkurako idazkari nagusiak edo Udaleko kontu-hartzaile nagusiak emana. Dirulaguntzaren ordainketa partzialak egin ahal izango dira, egindako gastua azaldu bezala justifikatu ondoren.

2.– Honela justifikatu beharko da urte bakoitzari dagokion zenbatekoa:

a) Vitoria-Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen egoitza gisa sustatzera bideratutako kopurua, udalaren gastu orokorrak finantzatzekoa, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen.

b) Vitoria-Gasteiz hiria Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza gisa sustatzera bideratutako zenbatekoa, hiri-espazio publikoa birgaitzeko obrak eta funtsezko azpiegitura publikoen mantentze-gastuak finantzatzeko, bai eta hitzarmen honen bidez diruz lagunduko diren azpiegitura eta ekipamendu publikoetako inbertsioak finantzatzeko ere, hurrengo ekitaldiko urtarilaren 31 baino lehen.

Vitoria-Gasteizko Udalak Jarraipen Batzordeari proposamen justifikatua egiten badio, luzapen bat eman ahal izango da hitzarmen honen bidez finantzatutako obrak eta inbertsioak gauzatzeko eta justifikatzeko. Luzapen hori, hala badagokio, Gobernu Kontseiluak onartuko du.

3.– Edonola ere, Vitoria-Gasteizko Udalak bost urtez gordeko ditu, Eusko Jaurlaritzaren eskura, hitzarmen honen xedearen garapenean sortutako gastuen egiaztagiri eta egiaztagiri guztiak, dagozkion egiaztapenak egiteko.

Bosgarrena.– Hitzarmen hau egituratzea, sustatzea eta koordinatzea.

Eusko Jaurlaritzak, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren eta Ogasun eta Finantza Sailaren bidez, honako hauek egingo ditu:

- Hitzarmen hau behar bezala gauzatzeko behar diren koordinazio-mekanismoak antolatzea.
- Hitzarmen honen xedea betetzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak garatu eta gauzatzea.
- Seigarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordeko buru izatea eta batzordearen funtzionamendua bultzatzea.

Seigarrena.– Hitzarmenaren Jarraipen-Batzordea.

1.– Emandako finantzaketaren Jarraipen Batzordea eratuko da. Batzorde hori lau ordezkari osatuko dute: bi Eusko Jaurlaritzakoak, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren bidez, eta bi Vitoria-Gasteizko Udalekoak. Eusko Jaurlaritzak, aholkulari gisa, batzorde horren bilkuretara deitu ahal izango ditu hitzarmen honen bidez araututako finantzaketari emandako erabilera egiaztatzearekin zerikusia izan dezaketen beste sail batzuetako langileak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra izango da Jarraipen Batzordeko lehendakaria, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzako ordezkari bat. Idazkari-lanak Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzari atxikitako langileek egingo dituzte.

3.– Klausula honetan araututako Batzordea hark onartzen dituen funtzionamendu-arauen araberako arautuko da, eta arau horiek Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 18. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko titulua II. kapituluaren 3. atalean kide anitzeko organoentzat aurreikusitako oinarritzko xedapenetan aurreikusitakoa errespetatuko dute.

4.– Jarraipen Batzordeak ahalmena du urteko gehigarrietan (2025ekoa barne) aurreikusitako gastu eta inbertsio zehatzak aldatzeko, bai eta dagozkien zenbatekoak aldatzeko ere, betiere errespetatuz adostutako urteko ekarpenaren zenbatekoa eta Vitoria-Gasteiz hiria erakunde erkideen egoitza gisa sustatzeko kanonari eta azpiegiturak hobetzeko inbertsioei dagozkien zenbatekoen banaketa.

Zazpigarrena.– Bateragarritasuna.

Vitoria-Gasteizko Udalak jasotako ekarpen ekonomikoa bateragarria da xede eta helburu berekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk eman ditzakeen beste batzuekin. Nolanahi ere, ekarpen ekonomikoaren zenbatekoak ezin izango du gainditu finantzatuko diren jardueren kostu osoa.

Laguntzen batura kostu hori baino handiagoa bada, soberakin hori bateraezintzat joko da, eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak eman beharreko ekarpenaren zenbatekoa murriztuko da.

Zortzigarrena.– Publizitatea eta zabalkundea.

Vitoria-Gasteizko Udalak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza den aldetik, udalerriri buruz egiten duen informazio, komunikazio, publizitate eta zabalkunde-jarduera orotan, berariaz adieraziko da finantzaketa Eusko Jaurlaritzatik datorrela, eta dagokion logo ofiziala jarriko da, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Klausula hau betetzen ez bada, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren bidez, errekerimendua egingo dio Vitoria-Gasteizko Udalari, ez-betetze hori konpon dezan. Behin eta berriz ez betetzeak, halakotzat hartuta birritan egin izana, urte horri dagokion dirulaguntza kentzea ekar dezake.

Bederatzigarrena.– Hitzarmenaren izaera juridikoa eta interpretazioa.

1.– Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta administrazio publikoen arteko lankidetzahitzarmenei aplikatu beharreko ordenamendu juridikoaren arabera interpretatu eta garatzen da, bereziki Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 33. artikuluan, atariko tituluan VI. kapituluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140.2 artikuluan eta aplikatu beharreko toki-araubidearen legerian xedatutakoaren arabera.

2.– Hitzarmenak edo haren betearazpenak sortarazitako interpretazio-arazoak Jarraipen Batzordeak konponduko ditu seigarren klausulan esandakoaren arabera; ezin badira ebatzi, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumena izango dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Hamargarrena.– Indarraldia.

Hitzarmen hau formalizatzen den egunean jarriko da indarrean, eta bere xedea amaitu arte iraungo du, gehienez ere lau urtez.

Aurreko apartatuan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edo hura azkentzea.

Hamaikagarrena.– Hitzarmena ez betetzea eta desegitea.

Vitoria-Gasteizko Udalak ez badu betetzen jasotako funtsen erabilera justifikatzeko betebeharra, ekarpena zertarako eman zen justifikatzeko betebeharra, ekarpen ekonomikoa emateko ezarritako baldintzak edo, oro har, hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, emandako zenbatekoak itzuli beharko ditu, bai eta laguntzak ordaindu zirenetik aplikatu beharreko legezko interesak ere, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan horretarako ezarritako prozedurari jarraikiz. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira legezko ondorio guztietarako.

Hamabigarrena.– Emandako laguntza behar bezala erabiltzen dela egiaztatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoak, bere teknikarien bidez, dirulaguntzaren xede diren obrak behar bezala egin direla egiaztatu ahal izango du, bai obrak egiten diren bitartean, bai obrak amaitzen direnean, eta funtsak behar bezala erabiltzen direla egiaztatu ahal izango du. Halaber, finantzatutako jarduketei buruzko informazioa emateko eskatu ahal izango dio erakunde onuradunari.

2025eko urriaren 3a, ostirala

Hamahirugarrena.– Finantzaketa-bermea.

Akordio honetan aurreikusitako konpromiso ekonomikoa ordaintzen ez bada, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak Vitoria-Gasteizko Udalari egin ez zaizkion finantza-transferentziak atxikitze sistema bat adostuko du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 24.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eta ados daudela adierazteko, aldeek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

LANKIDETZA-HITZARMENAREN ERANSKINA

2025EKO EKITALDIKO GEHIGARRIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOAREN ETA VITORIA-GASTEIZKO UDALAREN ARTEKO
HITZARMENARENA, VITORIA-GASTEIZ HIRIAREN SUSTAPENA FINANTZATZEKO
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE KOMUNEN EGOITZA DELAKO

1.– Udalaren gastu orokorretarako 2025eko ekitaldiko gastuak eta obrak, bai eta hiri-espazio publikoa birgaitzeko eta mantentzeko obrak ere.

1.1.– Gastu orokorrak: 6.000.000,00 euro.

Ekarpen ekonomikoa honako hauei dagozkien gastu orokorrak ordaintzeko erabiliko da:

- Argiteria publikoa (argi-kontsumoa eta konponketak).
- Bide eta azpiegitura publikoak mantentzea (kontserbazio- eta konponketa-gastuak).
- Bide-garbiketa eta hiri-hondakin solidoen bilketa eta garraioa (garbiketa-zerbitzua).
- Bidaiarien hiri-garraioa (Tuvisari egindako ekarpena).
- Herritarren segurtasuna (udaltzaingoa, langileen gastuak eta gastu arruntak).

1.2.– Hiri-espazio publikoa birgaitzeko eta mantentzeko obrak.

Gutxienez milioi bat (1.500.000,00) euro bideratuko dira hiri-espazio publikoa birgaitzeko obren eta funtsezko azpiegitura publikoen mantentze-gastuen finantzaketan parte hartzera, eta Udalak mota horretako jarduketak garatzeko zenbatekoak handitu ahal izango ditu. Zehazki, honako hauen finantzaketan parte hartuko da:

Hiri-espazio publikoan azpiegiturak birgaitzeko eta mantentzeko obrak	Zenbatetsitako kostua
Irisgarritasun-inbertsioak hirigune historikoan eta zuntz optikoan	350.000,00
Haur-parkeak eraberritzea eta berritzea	200.000,00
Mugikortasun-instalazioetako inbertsioak (autobus-geltokia, bizikleta-aparkalekuak...)	150.000,00
Oinezkoen mugikortasunerako inbertsioak auzo berrietan (Goikolarra...)	500.000,00
Oinezkoentzako pasabideen inbertsioak eta irisgarritasuna	200.000,00
Hiriko auzoetako zuhaitzen kudeaketa	300.000,00
Mintegiko eta hiri-baratze berrietako inbertsioak	300.000,00
Zirkulazioa kontrolatzeko sistemetako inbertsioak eta trafikoaren segurtasun-elementuak hobetzea	300.000,00
2025erako aurreikusitako inbertsioak, Guztira	2.300.000,00
2025erako Eusko Jaurlaritzaren ekarpena, Guztira	1.500.000,00

2.– Azpiegitura eta ekipamendu publikoetako inbertsioak 2025ean.

Osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzak beste inbertsio eta ekipamendu publiko batzuk finantzatzeko konpromisoa hartzen du, gehienez ere bost milioi (5.000.000,00) euro, eskema eta izaera honen arabera:

Inbertsio eta ekipamendu publikoak	Zenbatetsitako kostua
Etxebizitza komunitario berriak eraikitzea	500.000,00
Europa Biltzar Jauregia berritzea	300.000,00
Industrialdeen Mugikortasun Plana	300.000,00
Bidegorrietako obrak	500.000,00
Hiriko parkeak eta azpiegitura berdeak hobetzeko obrak	900.000,00
Eraberritzeak eta asfaltatze integralak	700.000,00
Kirol-instalazioetako inbertsioak (futbol-zelaiak, igerilekuak...)	500.000,00
Inbertsioak udal zentro eta lokaletan (Bizan adinekoen zentroak, herritarrei arreta emateko zentroak...)	900.000,00
Udal-eraikinetako inbertsioak (gizarte-etxeak eta bestelakoak)	1.000.000,00
Obrak hilerrietan	300.000,00
Argiteria eta energia-eraginkortasuna hobetzea	300.000,00
2025erako beste inbertsio eta ekipamendu publiko batzuk Guztira	6.200.000,00
2025 Eusko Jaurlaritzaren ekarpena, Guztira	5.000.000,00

Jasotako ekimen eta proiektuetan gastuaren barne-banaketa orientagarria baino ez da, eta Jaurlaritzak proiektu eta ekimenetan egiten duen ekarpenaren behin betiko banaketa horietako bakoitzean benetan esleitutako eta gauzatutako aurrekontuaren arabera izango da.